


## ■ EKOLOGIA BASO ESKOLA



Naturarekin harreman estua landuko dute Ekoguneako baso eskolan. Argazkiak: Kutxa Ekogunea.

Horrelako etxolak eraiki dituzte Ekogunean, baso eskolaren proiektua aurrera eramateko.

# Langile ikastola, Ekoguneko baso eskolaren esperientzia pilotuan

Gipuzkoako aurreneko baso eskola sortuko du Ekoguneak, Zabalegin dituen lurretan. Datorren ikasturtean dira hastekoak, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailak baiezkoa ematen badu. Langile ikastolak eta Donostiako Amara Berri parte hartuko lukete bi urteko esperientzia pilotuan.

JOAN den asteartean aurkeztu zioten Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailari baso eskolaren proiektua, Kutxa Ekoguneak eta haiekin elkarlanean dabilzan hainbat eragilek, tartean Langile ikastolak. Proiektuaren arabera, datorren ikasturtetik aurrera, Hernaniko Langile ikastolako eta Donostiako Amara Berri ikastolako Haur Hezkuntzako zenbait ikaslek Ekoguneko baso eskolan parte hartuko lukete.

**Ekoguneak, aurreneko pausua** 50garren hamarkadan sortu ziren aurreneko baso eskolak Danimarkan, eta urte asko pasa dira Euskal Herrira iritsi diren arte. 2014an ireki zuten aurrenekoa Araban, eta Gipuzkoan, Ekoguneak egin nahi duena izango da aitzindaria.

Europar zehar dauden beste esperientzien antzera, «helburua izango da gelatik atera eta eguna pasatzea naturan», azaldu du Kakun Odriozolak, Kutxa Ekoguneko Programa eta Edukien zuzendariak. Izan ere, Odriozolak dioenez, «iruditzen zaigu lau paretan artean ikastea ez dela aproposa, eta

gainera, demostratuta dago garapen psikomotriz eta kognitiboak lotura haundia daukatela honekin».

Eta beraien proiektua aurrera eramateko, zenbait eskolengana jo zuten. Horien artean dago Langile ikastola. «Aurreko ikasturtean Ekogunetik proiektua aurkezteko gonbidapena jaso genuen; guk uste genuen beste proiektu bat gehiago izango zela, eta sorpresaz hartu genuen!», diote Langile ikastolako zuzendaritzatik. Gainera, azpimarratu dute: «hemen-dik kanpo dauden baso eskolak pribatuak dira eta eskola txikiak hartzen dituzte. Bai gu, baita Donostiako eskola ere, hiriaren inguruan gaude eta ez gara txikiak. Ekoguneak hor dauka erronka».

### Metodologia, Langileren izaerarekin bat

Kakun Odriozolak azaldu du zein izango den Ekoguneko baso eskolaren metodologia: «jolas librea eta autonomia». Eta bide horretan, naturak aukera asko ematen dituela: «natura den konplexuarekin, etengabe oztopo txikiak

Langile ikastolak argi utzi du: «familiak informatu baino lehen, ez dugu informazio gehiago zabaldu nahi»

pasatzeko beharra dago». Gainera, abantaila asko dituela azpimarratzen du Ekoguneko arduradunak: «naturan hezteak abantaila asko ditu bai osasunarentzat; diziplinarentzat, umea autonomoa bada, libreki aukeratu badezake, hobeto portatuko da... Azken finean, hobetzea da, arlo guztietan».

Langile ikastolari oso eza-guna egiten zaion metodologia da hori, izan ere, eskolak berak dioenez, «guk eskola bezala, naturarekin harremana, jolas librea... beti landu ditugu».

### Hurrengo pausua: proiektua Eusko Jaurlaritzara

Ekoguneak eskolei proposamena luzatu ondoren, Batzorde

Teknikoa sortu zuen, hezkuntza eragileekin batera, proposamena osatzeko asmoz. Bertan daude Ekogunea bera, Langile eta Amara Berri ikastolak, EHU, Ingurugela CEIDA, eta Berritze Gunea. Talde hau izan da, hain zuzen, Eusko Jaurlaritzari proiektua azaldu diona: «printzipioz, proiektua gustatzen zaie, baina baliabideak ere beharko dira, horretarako», diote Langile ikastolatik. Beraz, Hezkuntza sailaren oniritzia jaso arte itxaron beharko dute. Kontuan izan behar da, eskola publikoak diren heinean, Eusko Jaurlaritzaren baimena behar beharrezkoa dutela bai Langilek, baita Amara Berri ere.

Behin baiezkoa jasota, 2017ko irailean, ikasturte berriaren hasierarekin batera, hasiko lirateke bi eskolen esperientzia pilotuak. Dena den, ordura arte, formazioa jasotzen ari dira irakasleak: «azpimarratzekoa da irakaslearen inplikazioa; ilusionatuta dago, eta horren erakusle da Haur Hezkuntzako irakasle gehienek hartu dutela parte formazioan, nahiz eta asteburutan izan», azaldu dute Langiletik. Horregatik, eran-

tzuna edozein dela ere, Langile ikastolari «erreflexio moduan ondo» etorri zaiola diote.

### «Pauso sendoak eman behar ditugu»

Hasiera batean, Eusko Jaurlaritzaren baiezkora jasotzen badute, Langile eta Amara Berri ikastolekin batera bi urteko esperientzia pilotua egingo dutela iragarri du Kutxa Ekoguneak. Baina hori baino gehiago da Langilerentzat: «gu pilotaje batean ez ginake sartuko haratago ikusiko ez bagenu. Helburua da gure egunerokotasunean txertatzea, baina badakigu pauso sendoak eman behar ditugula».

Horregatik, beharrezkoa ikusten dute pixkanaka pausoa ematen joatea, familiak eta irakasleak inplikatu. Lan hori aurrera eramateko, informazioa nola zabaldu aztertze... lantaldea sortu dute eskolan bertan. Ikastolaren antolaketa kontuan izanda, beraien prozesua jarraitu behar dutela diote, eta azpimarratu nahi dute: «familiak informatu baino lehen, ez dugu informazio gehiago zabaldu nahi». ■